42/2023 EBAZPENA, MAIATZAREN 23KOA, INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEARENA

Espedientea: 2023/000138

Gaia: …….. andreak jarritako erreklamazioa, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari aurkeztutako informazio-eskaera partzialki baietsi izanarekin ados ez zegoelako.

AURREKARIAK

1.- Espedientean egiaztatu denez, 2023ko otsailaren 21ean, ……..andreak informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailean. Zehazki, honako hau eskatu zuen:

> *«Pazientearen kontsulta-eskaeraren eta lehen hitzorduaren arteko batezbesteko atzerapenari buruzko datuak emateko ESKATZEN DUT, 2022koak edo datuak eskuragarri dituen azken urtekoak. Datuak hilabetearen, lanbide-kategoriaren (erizaintza, familia-medikuntza, pediatria) eta osasun-zentroaren arabera bereizita egon daitezela eskatzen dut».*

2.- 2023ko martxoaren 16an, Osasuneko sailburuaren kabineteko zuzendariak ebazpena eman zuen eta, haren bidez, …….. andreak informazio publikoa eskuratzeko eskaera partzialki onetsi zen, honako termino hauetan:

> *ZUZENBIDEKO OINARRIAK*
>
> *«1.- Abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak) 12. artikuluan dioenez, "Pertsona orok du informazio publikoa eskuratzeko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 105.b) artikuluan xedatutako eta lege honetan garatutako baldintzetan. Halaber, autonomia-erkidegoko araudia aplikatu beharko da, betiere bakoitzaren eskumenen barruan".*
>
> *Lege horren 13. artikuluari jarraikiz, "Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere".*
>
> *Legearen 14. eta 15. artikuluek informazioa eskuratzeko eskubidearen mugak eta datu pertsonalen babesa ezartzen dituzte, horiek ere kontuan hartu behar baitira ebazpena emateko orduan.*

2.- 2015eko urtarrilaren 13an, Gobernu Kontseiluak erabaki bat hartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan funtzionamendu-neurriak onartzeko, informazio publikoa eskuratu, publizitate aktiboa eman eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturan aurrera egiteko gaiekin lotuta. Akordio horren eranskinean honako hau zehazten da:

"Espedientearen instrukzioak barne hartzen du onargarritasunaren azterketa, eskatzen den informazioa aski identifikatzen ez den eskaera zuzentzeko eskaera, eskubideak edo interesak ukitu dakizkiekeen hirugarrenei entzunaldia eskaintzea, eskatutako informaziorako sarbide partziala edo osoa emateko ebazpena, edo sarbidea ukatzekoa, eta jakinarazpena".

"Administrazio honek 20 egun balioduneko epea ezarri du gehienez horren berri emateko, eta epe hori beste 20 egun baliodun luzatu ahalko da, informazioaren bolumenak edo konplexutasunak hala eskatzen badu. Epe horiek eten egingo dira interesdunari zuzenketak egin ditzala eskatu behar bazaio, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, eta zuzenketarik egiten ez badu, ezetsitzat joko da. Halaber, ebazpena emateko epea eten egingo da, 15 egun balioduneko epean, baldin eta hirugarrenei entzunaldia eman behar bazaie, beren eskubide edo interesak ukitu egin direlako.

Ebazpenak organo eskudunak emango ditu, Sailaren edo hark eskuordetzen duen organoaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren arabera".

(…)

EBAZTEN DUT

……..ek (…) aurkeztutako informazio publikoa eskuratzeko eskaera baiestea, ebazpen honen aurrekarietan adierazitako alderdiei buruzkoa, eta honako hau jakinaraztea:

Eskatutako datuak eta datu horiei buruzko dokumentu argigarria erantsi dira».

Ebazpenari Osakidetzako lehen mailako arretako koordinaziorako zuzendariordeak emandako dokumentua erantsi zaio, 2023ko martxoaren 13koa, honako datu hauek barne hartzen dituena:

«Honako hau argitu nahiko genuke, pazientearen kontsulta-eskaeraren eta lehen hitzorduaren arteko batez besteko atzerapenari buruz (2022an edo datuak eskuragarri dauden azken urtean) egindako informazio-eskaerari dagokionez:

Agenden atzerapenari buruzko datuak astean behin ateratzen dira informatikoki; izan ere, agendan hitzordua emateko libre dagoen lehen tartea

ateratzen da, aurrez aurreko hitzordurako nahiz telefono bidezko hitzordurako, herritarrak eskatutakoaren arabera.

Datua atzerapenaren batezbesteko gisa kalkulatzen da, estamentuaren, hitzordu motaren eta lehen mailako arreta-unitate bakoitzeko. Osakidetzako osasun-zentro guztietako agendak hartzen ditu barne eta, beraz, batzuetan atzerapena batezbestekoa baino handiagoa izaten da.

Informazio hori zehatzago aztertzen da ESI bakoitzean, eta atzerapena zergatik gertatzen den egiaztatzen da agenda bakoitzean. Horietako batzuk estaldura-arazoen eta kontratazio-zailtasunen ondorio izaten dira, langileak luzaz kanpoan direnean edo profesionalen oporraldietan.

Garrantzitsua da nabarmentzea kalkulu horretan ez direla barne hartzen egunean bertan arreta jasotzeko eskatzen dutenen eta osasun-zentroaren beraren barne-kudeaketaren bitartez telefono bidezko edo aurrez aurreko erantzuna jasotzen dutenen hitzorduak. Hitzordu mota horretarako, egunean zenbait tarte gordetzen dira agendetan, asistentzia hori eskaini ahal izateko.

Honekin batera, atzerapenen batezbestekoen xehetasunak erantsi dira lehen mailako arretako unitate bakoitzeko eta estamentu profesional bakoitzeko, martxoaren 6an ateratako azken datuen arabera (I. eranskina).

Kontuan izan behar da ematen diren datuak batezbestekoak direla. Azalpena:

- *<u>Atzeratutako egun kopurua 0</u>: Hitzordua datuak atera diren egunean bertan (martxoaren 6an, astelehena) hartzeko aukera adierazten du, aurrez aurre edo telefonoz.*

- *<u>Atzeratutako egun kopurua 1</u>: Aurrez aurreko hitzordua hurrengo egunean (martxoaren 7an, asteartea) hartzeko aukera adierazten du. Eta, horrela, hurrenez hurren.*

Osakidetzan, hitzordua aurrez aurre nahiz telefonoz hartzeko batez besteko atzerapen orokorra 48 ordutik beherakoa da estamentu bakoitzeko. Kontuan hartu behar da osasun-zentro guztiek egunean eguneko arreta ematen dutela pazienteak gehiago itxaron ezin dezakeela uste duen guztirako, eguneko hitzorduaren bidez.

	Atzerapen-egunen batezbestekoa aurrez	Atzerapen-egunen batezbestekoa telefono

	aurreko hitzordurako	*bidezko hitzordurako*
Administrazio-arloak	*0*	*0*
Erizaintza	*1*	*1*
Familia-medikuntza	*2*	*2*
Pediatria	*1*	*1*
Guztira, Osakidetza	*1*	*1*

**Batezbestekoa 2023ko martxoaren 6ko datuekin kalkulatu da».*

Erantzun horrekin batera, Osakidetzak Excel dokumentu bat erantsi du, «ATZERAPENA, AGU ETA ESTAMENTUAREN ARABERA_ 2023ko martxoaren 6a». Bertan, aurrez aurreko hitzorduan eta telefono bidezko hitzorduan izandako batez besteko atzerapenaren datuak jasotzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko AGU (Arreta Goiztiarreko Unitatea) eta Erizaintzako, Familia Medikuntzako eta Pediatriako estamentuen arabera bereizita (informazio hori ez da jaso ebazpen honetan, dokumentua oso luzea delako).

3.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eskaerari emandako erantzunarekin ados ez zegoenez, 2023ko martxoaren 27an, ……. andreak egindako erreklamazioa jaso genuen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzorde honetan.

> *«Nire eskaeran, pazientearen kontsulta-eskaeraren eta lehen hitzorduaren arteko batez besteko atzerapenari buruzko datuak eskatzen nituen, 2022koak edo datuak eskuragarri dituen azken urtekoak. Datuak hilabetearen, lanbide-kategoriaren (erizaintza, familia-medikuntza, pediatria) eta osasun-zentroaren arabera bereizita egon daitezela eskatzen dut.*
>
> *Erantzunean, eskatutako bereizketa-mailaren arabera jasotzen dira datuak, kategoriari, osasun-zentroari eta arreta motari (aurrez aurrekoa edo telematikoa) dagokienez; baina osatu gabe dago denbora-tarteei dagokienez.*
>
> *Datuak hilabetez hilabete eskatu arren, Excelak data bakar baterako jasotzen du batez besteko atzerapena, 2023ko martxoaren 6rako, alegia.*
>
> *Horregatik guztiagatik, emandako informazioa erantzun oso partziala da, eta ezin du inola ere ordezkatu eskatutakoa: horien izaeragatik, zerbitzu horien eskaria aldatu egiten da urtaro batetik bestera, eta ezin da behar bezala adierazi edo baloratu egun bakarreko datuekin.*

Emandako erantzunean zehazten denez, batezbesteko horiek astero ateratzen dira. Batezbesteko hori astez aste ematea hilabetez hilabete ematea baino sinpleagoa bada, bereizketa-maila berarekin (zentroa, lanbide-kategoria eta arreta mota), ez luke arazorik egon beharko eskaera formatu horrekin ebatzitzat emateko, 2022ra arte edo datuak dituen azken urtera arte».

4.- 2023ko martxoaren 30ean, Batzordeak erreklamazioa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bidali zion elektronikoki, gaiari buruzko txostena egin zezan eta hura ebazteko esanguratsutzat jotzen zituen agiriak aurkez zitzan hamar egun balioduneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

5.- 2023ko maiatzaren 2an, Batzorde honek alegazio-idazkia jaso zuen Osasuneko sailburuaren kabinetearen aldetik, 2023/000138 erreklamazio-espedienteari buruzkoa. Honako hau zioen:

«……
andreak aurkeztutako 2023/000138 erreklamazio-espedienteari buruzko informazio-eskaerari erantzunez (…), honako hau jakinarazten diogu Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari:

1. *…… (…) andreak 2023ko otsailaren 21ean aurkeztu zuen honako gai hauei buruzko informazio publikoa eskuratzeko eskaera (espedientea: 23-000072):*

   "Pazientearen kontsulta-eskaeraren eta lehen hitzorduaren arteko batez besteko atzerapenari buruzko datuak emateko ESKATZEN DUT, 2022koak edo datuak eskuragarri dituen azken urtekoak. Datuak hilabetearen, lanbide-kategoriaren (erizaintza, familia-medikuntza, pediatria) eta osasun-zentroaren arabera bereizita egon daitezela eskatzen dut".

2. *2023ko martxoaren 17an, eskatzaileak berak erreklamazio-espediente honetan aurkeztutako ebazpena eta dokumentuak bidali ziren.*

3. *2023ko martxoaren 27an, eskatzaileak erreklamazioa aurkeztu zion Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari, eta honako hau alegatu zuen:*

   "Erantzunean, eskatutako bereizketa-mailaren arabera jasotzen dira datuak, kategoriari, osasun-zentroari eta arreta motari (aurrez aurrekoa edo telematikoa) dagokienez; baina osatu gabe dago denbora-tarteei dagokienez".

4. ***Osakidetzatik jakinarazi digute eskatutako datuak lortzea oso neketsua dela eta prestatzen ari direla. Beraz, eskatzaileak datuak eskatutako moduan jasoko dituen erantzun bat prestatuko dugu datu horiek jaso bezain laster».***

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 1. artikuluan ezartzen duenez, aipatu batzordeak bere egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoan Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, GIBGOL) laugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako funtzioak.

2.- Era berean, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzko irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Batzordeari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde komun edo toki-erakundeetako administrazio publikoen eta EAEko sektore publikoko gainerako erakundeen berariazko nahiz ustezko ukatzeei buruz aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, GIBGOLen 24. artikuluan araututako informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzearen arloan xedatutako aurkaratze-araubidea aplikatuz.

3.- Bestalde, GIBGOLen 13. artikuluan ezartzen denez, informazio publikotzat hartzen dira edozein formatu edo euskarritan dauden edukiak edo dokumentuak, baldin eta I. tituluaren aplikazio-eremuan aipatutako subjekturen baten esku badaude eta haien funtzioen jardunean egin edo eskuratu badira. Horri dagokionez, erreklamazioak aipatutako informazioa, halakorik egonez gero, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren esku egongo litzateke; GIBGOLen aplikazio-eremuan sartzen da subjektu hori. Aztertzen ari garen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko arreta sanitarioaren gaia Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eskumena da, eta, beraz, argi dago erreklamatzaileak eskatutako informazio hori, osorik edo zati batean, sail horren esku dagoela. Nolanahi ere, agian zenbait kudeaketa egin behar dira Osakidetzarekin, sail horri atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den aldetik, erreklamatzaileari informazioa eman ahal izateko. Baldintza horiek betetzen direnean, organo eskudunak derrigorra du bidea zabaltzea eskatutako informaziora iristeko, non eta ez duen argi eta garbi azaltzen badagoela eskaria ez onartzeko kausaren bat, edo aplikatu beharreko lege-mugaren bat. Zentzu horretan, Osasun Saila berak, hau da, erreklamazioa jaso duen erakundeak, erreklamatzaileari eskatu dituen datuak emateko prest dagoela adierazi du, baina horretarako denbora beharko du, datuak erreklamatzaileak eskatu bezala antolatu/sailkatu/bereizi ahal izateko, helarazi

zitzaizkion datuak modu partzialean eman baitzitzaizkion (eskatutakoarekin bat ez zetorren denbora-tarte batekoak ziren).

4.- Erreklamazioaren ondoreetarako, informazio-eskaera 2023ko otsailaren 21ean aurkeztu zitzaion Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari. GIBGOLen 20.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, aipatutako Sailak hilabeteko epea zuen ebazpena emateko eta jakinarazteko. Osasun Sailaren erantzun-idazkia 2023ko martxoaren 16koa da eta, Sailak berak adierazi duenez, 2023ko martxoaren 17an bidali zen, aipatutako arauak xedatutako epean.

5.- Bestalde, …… andreak 2023ko martxoaren 27an jarri zuen erreklamazioa Batzorde honetan. Ildo horretatik, GIBGOLen 24.2 artikuluak dioenez, erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik edo administrazio-isiltasunaren ondorioak gertatzen diren egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Ondorioz, erreklamazioa epe barruan aurkeztu dela ulertu behar da, Osasun Sailak erreklamazioa partzialki onetsi ondoren.

6.- Aipatutako 19/2013 Legearen 12. artikuluak informazio publikoa eskatzeko eskubidea aitortzen die pertsona guztiei, eta 17.3 artikuluak xedatzen duenez, eskatzaileak ez ditu zertan azaldu informazioa eskuratzeko egindako eskabidearen arrazoiak, baina, hala ere, informazioa eskatzeko arrazoiak eman ahalko ditu, eta aintzat hartu ahalko dira ebazpena idaztean. Arrazoirik ez ematea, ordea, ez da eskabidea ukatzeko zioa izango. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen eskaerak ez du zertan arrazoitua izan behar, eta, beraz, ez da beharrezkoa interesduna izatea, ez eta eskatutako informazioan interes legitimo edo zuzenik egiaztatzea ere. Edozein pertsonak bere interesekotzat jotzen duen informazio publikoa eskuratzeko duen eskubidea da. Muga bakarrak legeak ezartzen dituenak dira.

7.- Osasun Sailari adierazi behar diogu, eskatutako informazioa eskatu den bezala bereizita lortzearen konplexutasuna dela-eta, ebazpena emateko epea luzatzea erabaki zezakeela, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 20.1 artikuluko bigarren lerrokadan zehaztutakoaren arabera: «*Epe hori beste hilabetez luzatu ahal izango da, baldin eta eskatutako informazioaren bolumena edo konplexutasuna direla-eta beharrezkoa bada, eta aldez aurretik eskatzaileari jakinarazita*», betiere eskatzaileari jakinarazten bazaio, eta kasu honetan ez da horrelakorik gertatu.

Horregatik, kasua aztertu ondoren, Batzordeak uste du, batetik, Osasun Sailak arrazoitu duen moduan, oso neketsua izan daitekeela informazioa hasiera batean eskatu bezala (hilero) lortu ahal izatea, baina eskatzaileak informazioa sisteman jasota dagoen bezala onartzen duenez, hau da, astero, ez da behar adina arrazoitu

informazioa emateko epea zergatik luzatu den. Horregatik, aurkeztutako erreklamazioa balioetsi da eta 20 eguneko epean eskuratzeko eskatu da; izan ere, Osasun Sailak alegatu duenez, dagoeneko eskatu zaio hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuari, hau da, datuak dituen erakundeari.

Aurreko guztia kontuan izanik, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak, aho batez, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Baiestea …….. andreak aurkeztutako erreklamazioa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztutako informazio-erreklamazioa zati batean baiesten duen ebazpenaren kontrakoa.

Bigarrena.- Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila premiatzea erreklamatzaileari eskatutako informazioa emateko hogei (20) eguneko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ebazpen honen 7. oinarri juridikoan ezarritako moduan.

Hirugarrena.- Ebazpen hau jakinaraztea erreklamatzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.

Laugarrena.- Ebazpena Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen web-orrian argitaratzea, behin erreklamatzaileari jakinarazpena egin eta datu pertsonalak bereizi ondoren.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa soilik jar daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak –Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duenak– 10.1.m) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 23an

Kidea	Batzordeburua
Ana Isabel García Maté	Miren Martiarena Barkaiztegi
Kidea	
Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino	